

BIXINTXO BILBAO, IKURRINA OSPATZEN DUEN PILOTARIA

Jon Garmendia

Munduko Txapelketan ikurrina ateratu zuen pilotaria. Bixintxo Bilbaok (Ziburu, 1991) badu etiketa horren zama eraman beharraren arriskua. Modurik naturalenean egin zuen, bere izateak ikurrinaren kolorekoa, usainekoa eta formakoa baitu arima. Ez alferrik bere aitatxi Juan Jose Gernika batailoian aritu zen; bere aita guardia zibilak preso eraman zuen semea Berara zeramala pilotan aritzera... Historia horren guztiaren segida da Bilbao, duela astebate Frantziako Elite Pro txapelketako txapelduna Peio Larralderekin batera.

Duela aste gutxi aintzen begi eta ahotan ibili zen Bixintxo Bilbao, Ziburuko pilotaria. 2018ko urrian, Bartzelonako Munduko Txapelketan garaile izan zen Peio Larralderekin batera, eta, garaikurrak jasotzerakoan, ikurrina ateratu zuen. Frantziako ordezkari gisa arituak ziren lehian eta izan zen jestu hori begi onez ikusi ez zuenik. Afera bere horretan geratu zela uste bazen ere, lau hilabete geroago, Nazioarteko Pilota Federazioko Diziplina Batzordeak urtebetean nazioarteko lehiaketetan parte hartzeko debekua ezarritzen Bixintxori. Bazterrak astindu zituen albisteak, sekulako babesa jaso zuen pilotariak, eta federazioari gibelera egitea beste erremediorik ez ziztzaion gelditu.

Ez zen garai onenean heldu Bixintxorentzat, kirolari baten lanean, bere kontzentrazioan, anitz eragiten baitu halako oihartzun mediatikoa bizi beharrak eta Elite Pro mailan Frantziako Txapelketa jokatzeko prestatzen ari baitzen momentu horretan. «Harri-



dura da buruan nagusitu zitzaidan hitza, haiengandik ez nau askok harritzen egia erran, baina harritu ninduen afera guztiak hartutako dimentsioak, zigorra jartzeko manerak, eta zigor horrek ukan duen oihartzun handiak ere bai. Uste dut nitaz haragoko zerbait izan dela jendearen defentsa, euskal sentimenduari edo euskal jendearen ikur maitatu bati eraso egin ziotelako hain zuzen».

Mathieu Ospital eta Peio Gixandutek osatzen zuten Munduko Txapelketako Frantziako ekipo hura. Bitxi

Bixintxo Bilbaok eta Peio Larraldekin joan den urrian Munduko Txapelketa irabazi zuten Bartzelonan. Bilbaok ikurrina ateratu zuen ospakizunetan eta hautsak harrotu zituen keinu horrek. Alboko orrialdean, Larralde-Bilbao bikotea. Joan den asteburuan Frantziako Elite Pro txapelketa irabazi zuten.
Manu AMADO

egiten du lau euskaldun ikustea euskal pilotan Frantzia ordezkatzeko, eta are bitxiago da federazioak euskarren erabilerarik ez izatea, bide horretatik dator bestalde, ikurrina ia arrotz ikustea. «Ni euskalduna naiz. Alderik alde hala sentitzen naiz, eta harro nago ikurrina agertu izanarekin, azken batean, berriro egiteko aukera banu, berriro egingo nuke gauza bera». Eta berari egotzi zaion errespetu eskasa berekiko izan dutela aldarrikatzen du pilotariak. «Pelota vasca, federación vasca... bezalako hitz potoloak erabil-

tzen dituzte eta horren ondoan ikurrina agertzea debekatzen digute. Gure ikur bat da, gure kultura eta hizkuntza barnebiltzen dituen besteak beste, eta hor errespetu eskasa nabaritu dut haiengandik, ikusten dut erabili nahi gaituztela, baina haien helburuak betetzeko soilik».

Halere, hau guztia gerora pentsatu duen zerbait dela aitortzen du Bixintxok, debeku eta traba guztien gainetik norberak bere barnekoa agertzeaz mintzo da, berezkitik. «Mundiala irabazi nahi nuelako joan nintzen Bartzelonara, hori zen nire desira lehena, ez nuen sekula jokatu mexikarren aurka eta Peio lagunarekin aski gai ikusten nintzen haiei aurre egiteko; beraz, titulu horren xerka abiatu nintzen, galdera pausatu gabe nor ordezkatzeko nuen, Frantzia kasu honetan. Finala irabazi genuenean poza sentitu nuen, eta ikurrina hor zen, naturalki ateratzen zaitzaidan hura eskuetan hartzea, sentitu nuen tentsio puntu bat edo, gure hurbilean zeudenek begi onez ikusi ez balute bezala, txistu soinuaren bat edo... Baina niri barnetik ateratzen zaitzaidan ikurrinarekin agertzea podiumean, ez zen izan aurrez pentsatutako kontua».

BIZIKI ONGI IKUSIAK

Xinple eta zuzen agertzen du Bixintxok gertatutakoa. Begirada sakona du 1991ko apirilaren 19an Ziburun sortu zen gazteak, eta kirolarentzat bizitzaren eraginez gorputz gihartsua ageri du. Bide batez, baina, zeharka aitortu digu ez dela erraza kirolerik bizitzeko trinketean jokatu. «Mundialeko araudiari, adibidez, ez nion erreparatu ere egin, edo biziki gainetik. Ezagutzen ditudan pilotari batzuek, Espainia ordezkatzeko dutenak, badakit atentzioa jartzen diotela araudiari, zigor dezente dituztelako parean haiek, tartean santzio ekonomikoak. Laguntzarik gabe gelditzeko arriskua ere badute. Baina, gure kasuan, boluntario gisa jokatu genuen lehia hura».

Zeharka, bazterrera bota digun ñakoa profitatu dugu trinketeko pilotari



bat irabazten duenarekin bizi ote daitekeen galdetzeko. «Biziki ongi ikusiak gara hemen pilotariak, ez dugu enpresa bat gibeletik, eta horrek askatasun dezente ematen digu. Baina ez dugu kontraturik bestalde, partidua jokatu ondotik lortzen dugu dirua, beraz, zenbat eta gehiago jokatu, errazago bizi zaitezke lortutako horrekin, baina gutxi batzuk gara egun partidu anitz joka genezakeenak. Halere, antzekoa gertatzen dela erranen nuke ezker paretan ere». Gazteago zenean frontoi luzean jokatzen aritu zenez, hura ez ote zuen nahiago galdetu dio. «Duela bost urte eginez gero galdera bera, beharbada ezker paretan jokatu nahi nuela erantzungo nuen, baina egun, biziki pozik eta gustura sentitzen naiz trinketean. Jokaleku berriak irekitzen ari dira, jendea gu ikustera heldu da eta etorkizun polita ikusten diot jokoari, eskolak ere bere fruitua ematen ari direlako. Bereziki pozgarri zait, adibidez, neska gazteak pilotan ikustea. Inoiz baino gehiago ari dira».

Horrekin lotu du berari gertatua emakume bati gertatu zitzaiona aipatzeko, jopuntua harengan jarri zutela


eta nehor gutxi mugitu zela salatze-ko. «Komunikabideren bat egin da ai-pamenaren jabe, baina oraino isilta-sun anitz dago Dunixe Larralderen kasuarekin. Hark 1990ean Kuban ira-bazi ondotik agertu zuen ikurrina eta oker ez banaiz lehena izan zen, baina ez zuen babes handirik jaso, eta tira, badakit anitz direla ikurrina agertuko luketen kirolariak bestalde, eta baita Euskal Herria ofizialki ordezkatzuz txapelketetan parte hartu ere, baina hori dena gaur egun zintzilik eta gau-zatzeke dago oraindik».

BERRIRO, TXAPELDUN

Frantziako Elite Pro txapelketa ere Peio Larralderekin jokatu du, ez da erraza izan ziburutar pilotariarentzat, katramila guztiaz gain osasun arazoei ere aurre egin behar izan baitie, sor-baldako arazoek partidu bat bertan behera uztera behartu zuten adibi-dez, eta guztiz osatua ez bazegoen ere, txapela burura eramatea lortu du berriro. Apirilaren 28an jokatu zen fi-nala Baionako Modernen, eta ederra eta lehia bizikoa izan zen. Berdinke-tak nagusitu ziren tanteoan, baina az-kenik 40 tanto erdiestea lortu zuten Larralde eta Bilbaok Battitta Ducas-sou eta Mathieu Ospitalek osaturiko bikotearen aurka; hala, partidu guz-tian aurretik joan baziren ere, 37an gelditu ziren azken biak. «Laguna dut Peio, 2015ean berekin lortu nuen le-hen txapela eta biziki gustura joka-tzen dut berekin, ongi sentitzen naiz bere ondoan, trinket barnean zein kanpoan. Finala ez zen nire partidu-rik onena izan, eta Peiori esker egin genuen gorantz, etsi gabe eta lanean jarraituz, gibeletik geneuzkan tantoei buelta ematea lortu genuen».

FAMILIAREN BABESA

Aita eta ama ere ondoan zituen Bixin-txok, eta haiei galdetu genien zer sen-titzen duten semea pilotan ari dene-an. Maialen Tapiak segidan erantzun zigun. «Anitzek galdegiten didate ha-rrotasunari buruz, eta ez, ni ez naiz harro Bixintxoren lorpenekin, poza da sentitzen dudana, ikusten baitut



Juan Jose Bilbao, Bixintxoren aitona, Gernika batailoian aritu zen. 1936ko guda amaituta, Espainiatik ihes egin eta faxisten aurkako gerran jarraitu zuen Frantzian. Alboko irudian, bilbaotarrenean harro gordetzen duten dokumentu ofiziala, aitonaren borroka aitortzen duena. GAUR8

Bixintxok lortzen duela nahi duena egitea, eta horrek bizitzan garrantzia handia du. Pozik naiz». Mattin Bilbao aitak «plazera» du ardatz. «Bixintxok plazer hartzea eta hurbileko guztien plazera izatea plazer hori bera». Mattinek egiten ditu Bixintxoren aholkulari lanak. Bigarren semea du, orotara lau dituzte Maialen eta berak, eta ttipidanik lagundu dio Bixintxori bere nahia betetzen, hainbestearino,

«Harritu ninduen afera guztiak hartutako dimentsioak, zigorra jartzeko manierak, eta zigor horrek ukan duen oihartzun handiak ere bai. Uste dut nitaz haragoko zerbait izan dela jendearen defentsa»

«Aitatxi ikurrinarekin ibili zen, bai. Okzitaniako Pointe de Graveko operazioan agertutako adore eta kuraiagatik Frantziako presidenteak errekonozimendu bat eman zion, eskerrak eman zizkioten berari eta Gernika batailoio osoari»

ezen, haurra zelarik, Berako pilota eskolara joan nahi zuela Bixintxok eta, aitak, beretzat arriskutsua bazen ere muga zeharkatzea, eraman egiten zuela; semearen nahia betetzea indartsuagoa zen Mattinentzat arriskua baino, eta Berarako joan-etorrian guardia zibilaren kontrol batean atxilotu eta Espainiara eraman zuten kartzelara; han eduki zuten hiru urtez. Artean ez zekien ia gaztelaraz ere, eta etxekoentzat kolpe gogorra izan zen. «Garai hura ez dut sobera presente, burmuinak babesteko duen ariketa bezala ikusten dut, zerbait mingarria ahanzteko sortzen den estalkia bailitzan», aitortu digu Bixintxok, baina argi da gertaera hark lau anaiak elkartze bidean izan zuen garrantzia, eta batez ere Maialen Tapiaren ahaleginak lortutakoa.

AITATXI JUAN JOSE ETA IKURRINA

Bilbao familian, hala ere, kontatu berri duguna ez da euskal nortasunarekin lotutako gatazka bakarra, Mattin Bilbaoren aita Juan Jose Gernika batailoian aritu baitzen. 1936ko guda amaituta, faxisten aurkako gerran jarraitu zuen Frantzian, Espainiatik ihes egin eta gero, demokrazia eta askatasunaren alde.

Aitonari buruz galdetu genion Bixintxori, konparazio bat eginaz bere ikurrinaren aferaren eta haren artean. «Aitatxi ikurrinarekin ibili zen, bai. Okzitaniako Pointe de Graveko operazioan agertutako adore eta kuraiagatik Frantziako presidenteak errekonozimendu bat eman zion, eskerrak eman zizkieten berari eta Gernika batailoia osatzen zuten gudari guztiei. Dokumentu horiek etxean dauzkagu gordeak, eta haietan garbi ikusten da euskal identitatea onartua zutela agintari horiek. Ondarroakoa zen aitatxi Juan Jose, dokumentuan Jon Joseba idatzia dago euskarazko zatian eta euskaldun gisa errekonozitua da. Badirudi, ordea, urteek aurrera egin arau, frantses agintariak ahanztia dutela euskaldunen emaria haien nazioaren askatasunaren alde eta, gaur egun, euskal izaera duen

ororen aurka ari direla. Horren barnean ezartzen dut ikurrinaren afera».

Bixintxorekin Donibane Lohizuneko karrikak ibili ditugu, jendeak agurtu egiten du dendetatik irtenda, batzuek partidari buruz galdetzeko, beste batzuek zoriontzeko. Eguneroko bizitzari lotua jarraitzen du gazte ziburutarrak eta bistan da biziki ezaguna dela Lapurdiko kostaldeko inguru honetan. Ttipitan jokatzen zuen trinketera eraman gaitu, Maitena, Donibane Lohizuneko zaharrena. Bertan urteetan aritu da pilotari eskuz eman eta eman. «Ttipitan zesta-puntan aritu nintzen, horiek izan ziren pilotan nire lehen urratsak. Esku pilotan Donibane Lohizuneko klubean hasi nintzen Manex anaiarekin, trinketea, Sebastian Jauregi, Itoitz eta Laurenten aginduetara. Unai Ugarte ezagutu nuen gero, eta harekin luzaz aritu



Bilbao Donibane Lohizuneko Maitena frontoian hasi zen haurra zela. Lehen urratsak zesta-puntan eman zituen eta gero pasatu zen trinketera.
Manu AMADO

nintzen pilotan. Hamabi urte nitue-nean aitak eraman ninduen Berara Luis Mari Retegiren ikusterat, ezker paretan hasteko, eta hor Unairekin batera hasi nintzen Donostian; gero, Hernaniko pilota eskolarekin aritu nintzen eta frontoi luzean jokatu, berriro trinketera itzuli nintzen arte».

Maitena trinket zaharra erakusten digun artean pilotari historia kontatzen digu, zahartzean halako trinket batean proiektu bat gustura egingo lukeela azpimarratzeko, haurrekin. «Pilotak eta euskarak elkarrekin egon behar dute. Pilotaren bidez indar daiteke hizkuntza aldetik ahula den egoera Iparraldean. Etorkizunean gustura egingo nuke lan arlo horretan, baloreak transmititu eta ustez baliagarri den zerbait hedatzen». Horretarako, ordea, txapel anitz falta dira oraindik buru horretan.